

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### KANTAUURIKO URKIDETZA UR PARTZUERGOA

**ACR31/18JG. Erabakia, 2018ko irailaren 18koa, Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoaren Gobernu Batzarrarena, Laudioko Udaleko ordezkariak Kantauriko Urkidetza Partzuergoaren Kontratazio Mahaia izendatzeko ekainaren 15eko PRP13/2018 lehendakaritza proposamenari egindako zuzenketa onartzen duena**

2015eko urriaren 15ean Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoaren gobernu organoak eratu ziren, eta 2015/2019 legealdirako Gobernu Batzarreko ordezkariak izendatu zituzten. Organo horrek, CAKUko Kontratazio Mahaia izendatu zuen 2015eko azaroaren 6ko ACR27/15JG erabakiaren bidez.

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoaren Kontratuenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE zuzentarauak estatu ordenamendu juridikora aldatzen dituenak, Kontratazio Mahaiaren beste erregulazio bat egiten du. Horrela, Partzuergoak, toki administrazioaren barruan dagoenez, erregulazio horretara egokitu behar du.

Oro har, SPKLren 326. artikulua haxe ezartzen du: administrazio publikoen kontratazio organoei kontratazio mahai batek lagunduko die, tasatutako eginkizunak dituen organo tekniko espezializatu gisa. Mahaiko kideak kontratazio organoak izendatuko ditu.

Legearen bigarren xedapen gehigarriak toki erakundeek kontratazioaren arloan dituzte eskumenak zehazten ditu, baldintza hauekin:

Kontratazio mahaiko burua korporazioko kide bat edo hango funtzionario bat izango da. Haren barruan, kide gisa, idazkaria, edo hala badagokio, aholkularitza juridikoa egiten duen organo titularra, eta kontuhartzailea, edo hala badagokio, ekonomia eta aurrekontua kontrolatzen dituen organo titularra arituko dira. Kontratazio organoak korporazioaren zerbitzura lan egiten duten karrerako funtzionarioen edo langile lan-kontratudunen artean izendatzen dituenak, edo kide hautetsiak (gutxienez, hiru) ere kide izango dira. Kontratazio mahaiaren barruan dauden kide hautetsiak, gehienez, kide guztien herena izan daitezke. Idazkari lanetan korporazioko funtzionario batek jardungo du.

Udaleko toki erakundeak, mankomunitateak edo toki partzuergoak probintziako aldundien edo probintzia bakarreko autonomia erkidegoen zerbitzura lan egiten duen mahai pertsonalean sartu ahalko dira.

Behin-behineko langileak ezingo dira inola ere egon kontratazio mahaien barruan. Halaber, ezingo dute eskaintzak baloratzeko txostenik egin. Bitarteko funtzionarioak mahaiaren barruan egon daitezke baldin eta nahikoa kalifikatuta dagoen karrerako funtzionariorik ez badago, eta espedientearen hala egiaztatzen da.

Dagokion kontratazio organoaren kontratatzailearen profileen argitaratuko da nola osatuta dagoen mahaia.

Kontratazio mahai iraunkorrak era daitezke.

Dena den, kontratazio mahaien kideen kargua argitaratu beharko da. Ezin da aipamen generikorik edo zehaztugaberik egin, ezta ordezkari diren edo zerbitzuak ematen dituzten administrazio, organismo edo erakundeari buruzkoak bakarrik diren aipamenik ere (SPKLren 65. artikulua).

Partzuergoaren estatutuen 38. artikulua idazkariaren eta kontuhartzailearen eginkizunak pertsonak batek bakarrik izan ditzakeela ezartzen du.

Gobernu Batzarraren lehendakaritza proposamenari dagokionez, Laudioko Udalak zuzenketa bat proposatu du, eta puntu hauetan oinarritzen da:

1. Lehen kidea enpresa pribatu bat izateko aukera ezabatzea.
  2. Laudioko udalerrria normalean gehien ekartzen duen herria denez, bigarren kidea nor den erabaki beharko luke.
  3. Hirugarren kidea aldundiko funtzionario bat izan daiteke, baina ez eskumen hori duen enpresa pribatu batekoa.
  4. Kontratazio mahaian kontrol politikorik ez egotea proposatu da. Partzuergoko talde politikoek mahaian egoteko aukera izan beharko lukete, botoa emateko eskubiderik ez badute ere.
- Aurrekoarengatik guztiagatik gobernu batzarrak hau ebatzi du, 94 legezko bototik, 89 aldeko botorekin:

#### ERABAKIA

1. Orain adieraziko diren karguak Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoko kontratazio mahai iraunkorreko kide izendatzea:

Lehendakaria: Gobernu Batzarreko lehendakaria.

Idazkaria eta 1. kidea: Partzuergoko idazkari/kontuhartzailea, edo hala badagokio, aholkularitza juridikoaz eta ekonomia eta aurrekontua kontrolatzeaz arduratzen den organoko titularrak. Ezingo da egon eskumen hori duen enpresa pribatu batean.

2. kidea: Laudioko Udalak izendatutakoa, partzuergora ekarpenik handiena egiten duen udalerrria delako.

3. kidea: Arabako Foru Aldundiak izendatutako funtzionarioa, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailekoa, edo aholkularitza juridikoa eta aholkularitza tekniko ekonomikoa ematen eta toki erakundeei abokatu laguntza eskaintzen diena. Ezingo da egon eskumen hori enpresa pribatu batean.

2. Kideen ordezkioak izango dira jatorrizko erakunde bakoitzak bere arautegiari jarraituz izendatzen dituenak.

3. Partzuergoko talde politikoek kontratazio mahaian egoteko aukera dute, botoa emateko eskubiderik ez badute ere.

4. Kontratazio mahaiaren funtzionamendu araubidea Sektore Publikoaren Araubide Juridikoko urriaren 1eko 40/2015 Legeak administrazio publikoen kide anitzeko organoetarako ezarritakoa izango da.

5. Kontratazio mahaiaren bilkuretara bertaratzeagatik kalte-ordaina emango da, partzuergoaren gobernu organoek eta aplikatzekoa den araudiak zerbitzuen kalte-ordainei buruz ezarritakoaren arabera.

6. Aplikatzekoa den ordenamendu juridikoaren eta aurreko lehen puntuan adierazitakoaren arabera, partzuergo honen kontratazio mahaiko bigarren kidea izenda dezala eskatzea Laudioko Udalarik.

7. Aplikatzekoa den ordenamendu juridikoaren eta aurreko lehen puntuan adierazitakoaren arabera, partzuergo honen kontratazio mahaiko hirugarren kidea izenda dezala eskatzea Arabako Foru Aldundiaren Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailari.

8. Erabaki hau interesdunei jakinaraztea eta ALHAOn argitaratzea.

9. Batzar orokorrari eman beharko zaio izendapenaren berri hurrengo bilkuran.

Izorian, 2018ko irailaren 18an

*Lehendakaria*

**JULEN IBARROLA GOBANTES**